

Hasi dira beherapenak komertzioetan

■ Astelehenean hasi ziren ofizialki ■ Gutxieneko 15 egun eta gehieneko 2 hilabete egin ditzake beherapenak jarri nahi dituen komertzioak.

URTEAN bi beherapenaldi izaten dira komertzioetan: bata urtarrila inguruan eta bestea orain. Jaurlaritzak epeak markatzen ditu eta dendariak gutxieneko 2 aste eta gehieneko 2 hilabetean jarri ditzakete beherapenak beren komertzioetan.

BEHERAPEN ETA MERKEALDIAK

Legez ez dira gauza bera beherapen eta merkealdiak. Beherapena fetxa hauetan egiten den prezio jeitxiera da. Merkealdia, berriz, produktu bat zaharra, edo ondatu xamarrak dagoelako egiten den prezio murrizketa. Beherapenetan erositakoan normal erositakoan bezalako eskubideak ditu kontsumitzaileak.

BI PREZIOAK

Beherapenetan dauden produktuek, hilabete aurretik denda behar dute gutxienez; behera-

penetarako ezin direla ekarri, alegia. Etiketetan bi prezio nabarmendu beharko dira: beherapenetan duen prezioa, eta beherapenen aurretik zuena. Denda bat beherapenetan dagoenean, produktuen erdiak rebajaturatu beharko ditu gutxienez.

“PRESARIK GABE EROSI”

Kontsumitzaileen elkartetik gomendioak eman dizkigute beherapenetan erosteko:

■ Presarik gabe erosi, lehen egunetan inpultsozko erosketak egiteko arriskua dago-eta.

■ Beherapenetan ezin da produktuen kalitatea gutxitu. Kalitate bera izan behar dute beherapenetan eta jarri aurretik.

■ Beti eskatu ordainagiria edo erosketari txartela.

■ Tresneri elektrikoen garrantia ez da aldatzen beherapenetan.

■ Beherapenetan eskubide

berak ditu kontsumitzaileak. Konforme ez denak erreklamazio orriak eskatu ditzake.



‘EGUZKI’ PERFUMERIA

“Kaleak obretan daude eta ez da jende gehiegi etortzen beherapenetan. Gainera sentidua galdu dute egun hauek, asko behar baino lehenago hasten baitira beherapenekin”

“Gelditzen diren gauzak ateratzeko jartzen ditugu beherapenak, gaur egun gauzak modatik azkar pasatzen baitira”



‘YONE’ BOUTIQUE

“Beherapenetan tenporadan baino askoz jende gehiago etortzen da, lehen 3-4 egunetan gehien bat.”

“Erropa zaharra atera eta berriarekin hasteko jartzen ditugu beherapenak. Urte gutxian haibeste jende ibiliko balitz ez genuke beherapenen beharrik dena saltzeko.”



‘IPOTX’ UME JANTZIAK

“Gaur egun ez da jende gehiago ibiltzen beherapenetan. Gainera herrietik jende asko oportetara joaten da eta hori nabaritzen da. Jendeak gero eta gutxiago gastatzen du erropan, janarietan...”

“Gelditzen den jeneroa saltzeko dira beherapenak. Irabazirik ez da ateratzen, baina, kubritu bai”



‘ANBOTO’ JANTZIDENDA


“Beherapenetan bastante jende gehiago ibiltzen da normalean baino, nabaritzen da. Gainera normala da deskontu hauekin.”

“Gelditu diren taila sultuok ateratzeko balio dute beherapenek. Dena ateratzea zaila da baina guk gehiena behintzat saltzen dugu.”

SAN FERMINAK MARTINDEGIN

Txupinazoak hasiko ditu gaur San Ferminak Martindegin

■ Kruz Marik botako du txupinazoa 10:00etan ■ Gero, ume jolasak, gazte bazkaria eta Trakets, besteak beste.



‘Larra’k bota eta Barrenetxeak edan.

IRUÑAKO jaien inbidiarik ez duten festa nahi duenak Martindegin du aukera polita, asteburu osoan. Aurtun, *Kruz Marik* hasiko ditu jaiak, Jai batzordeko kide batek *Kronikari* esan dionez.

Txupinazoaren ondoren ume jolasak etorriko dira eta gero auzoko gazteek bazkaria egingo dute. Urteroko ohiturari eutsiz, arratsaldean zinta karrera eta torilla patata lehiaketa: 20-25 auzotar inguruk hartuko du parte.

Sagardo lehiaketan, berriz, 7 sagardozaile izango dira: Sarasola, Oiarbide, Etxeberria, Larrarte, Zelaia, Tolosa eta Mendizabal. □

EGITARAUA

10:00etan: Txupinazoa eta kalejira.

11:30etan: Haur jolasak.

14:00etan: Gazte bazkaria.

16:30etan: Marrazki lehiaketa.

17:30etan: Zinta karrera.

18:00etan: Haur jolasak.

19:00etan: Tiro Karabina txapelketa.

20:00etan: Tortilla patata txapelketa.

21:00etan: Sagardo lehiaketa.

23.00etan: Trakets.

Zure publizitatea
hemen:

☎ 943-330899

Allianz

ASEGURUAK

Agustin Ezponda
AGENTZIA

Tel.: 943 557 326
656 735 109

URGASKA, S.L.

GAS INSTALAKUNTZA
MATERIAL SALMENTA

K21

* ASISTENTZIA TEKNIKO,
GAS ETA BEROGINTZAN.
* GAS PROPANO, BUTANO
ETA NATURALA: MANTENUA

Aristizabal 9 Beh
Tel: 943 33 37 4



Bidaiak

HERRIAK - MENDIAK - TURISMOA

HERNANI BIDAIAK

Urbietan, 6

☎ : 943- 33 00 49 / 33 01 74
Faxa: 943 - 33 01 74
20.120 HERNANI

SANSONATEGI

HERNANI GIPUZKOA



TFNOA - FAXA: 943 553 260

JATETXEA
SAGARDOTEGIA

■ ARRAUNA

Bihar eta etzi erabakiko da traineru bakoitza zein ligatan arituko den

■ Pasai San Pedroko uretan jokatu dira estropadak ■ 31 traineruk hartuko dute parte ■ Bihar 18:45etan eta etzi 19:45etan.



Asteburu honetako estropadak 'A' edo 'B' ligan jokatzeko balioko du.

DATORREN asteburuan erabakiko dira arrauneko 'A' eta 'B' ligak, San Pedroko uretan. 31 traineru aterako dira bi minututik bi minutura, itsasora barneratu, ziaboga hartu eta buelta egiteko. Lehenengo gelditzen diren sei traineruek denboraldia 'A' ligan jokatu dute, igandeko onenekin batera.

IGANDEAN 25

Lehenengo seiak ez beste guztiak igandean ere izango dute estropada. Lehen 2 onenak A ligan sartuko dira (larunbateko 6ekin 8), 9tik 12ra bitartekoak 8 estropada 'A' ligan eta 4 'B' ligan jokatu beharko dituzte, eta 13tik 16ra bitartean gelditzen direnek 4 estropada 'A' eta 8 'B' n. Hortik aurrerako

postuak 'B' ligako estropadak aukeratzeko balioko dute.

HERNANIK ZAILA DU

Gureak dituztenak ematera aterako dira, baina, ez daukate panorama erraza. 3 lagun lesionatu egin dira eta 14 daude, traineruan aritzeko justuak. Larunbata eta igandean mutil berak aritu beharko dute, beraz. □

Udalekuetan ekitaldi bereziak gaur: 'Zikin eguna' eta 'San Ferminak'

■ 12:00etan 3 umek pregoia irakurriko dute Gudarien plazan.



Ume bat blai egin da iazko zikin egunean. Umeek gozatu ederra hartu zuen behintzat.

UDALEKU irekiek ostirala egun berezia dute. Taldeak bildu eta elkarrekin egiten dute ekintza bereziren bat. Gaurko bi prestatu dituzte: *Zikin eguna* eta *San Ferminak*.

'ZIKIN EGUNA' LANDAREN

Zikin eguna urtero egiten dute, Landareko errugbi zelaian. Jardineritzako mangerak jarri eta hantxe zikindu ahala garbituz. *Zikin eguna* ez ezik busti eguna ere izaten da azkeneko. 3 eta 4 urteko umeak ibiliko dira.

ZAPI GORRIAREKIN

5-9 urte bitartekoek San Ferminak ospatuko dituzte. Goizean kantua entsaiatu 11:30-etarako trikitilariekin zita egin eta 12:00etan, festa, pregoi eta guzti. Benetako San Fermin zaleak bezala, umeak niki txuri eta zapi gorriarekin ibiltzen dira. □

Berriak elkarteak uztailaren 10ean egingo du batzar orokorra

■ Euroaren simulazio-proiektua izango da gai nagusietako bat ■ Sandiusterrin da, 20:00etan.

■ TXANTXANGORRI

Tiroa Santa Barbaran etzi, larunbat eguerdian

■ Foso unibertsala modalitatean da ■ 11:30etan ■ Irabazleak arkumea eramango du sari.

SANTA BARBARAN tiro txapelketa dago larunbatean Txantxangorriko bazkideentzat. Izena ematea 10:30etan da eta 11:00etan hasiko da.

ERREGULARITATEA

Larunbateko tiraldia erregularitate txapelketaren barruan sartzen da. Hori irabazten duenarentzat sari politak daude.

■ ERREMONTEA

Luis Mari Zubeldiak agur beroa jaso zuen atzo Galarretan

■ Aurten 19 urte beteko dira profesionaletan debutatu zuela ■ Atzo jokatu zuen bere azken partidua.



Ezkerretik: Etxabe, Altuna II, Zubeldia eta Ezkurra, atzo.

LUIS Mari Zubeldiak berrogei urterekin esan dio agur pelota profesionalari. Atzo jokatu zuen bere azken partidua Galarretan. Datorren astelehenean Iruñan omenaldia egingo diote, eta abuztuan Galarretan ere bai.

Bere palmaresean buruz buru-ko San Fermin torneo eta bi bitako txapelketako bigarren postua ditu, besteak beste.

Atzo, bere azken partiduan, 40-38 galdu zuen Ezkurra lagun zuela Altuna II eta Etxaberen kontra. □

'DONOSTI CUP'

Gaur sei partiduko jokatu dira Zubipen

■ Goizeko 11:00etan hasi eta 18:30etan jokatu dute gaurko azken partidua.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 557750
▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Sagastiberri Urbieta 7 ☎ 943 552941
▶ Gaez: Bulnes Etxeberri. Florida auzoa ☎ 943 557738